

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Korrikaren lehengusua Bretainian

REDADEG izena hartuko du Euskal Herrian bi urtez behin egiten den Korrikaren tankerakoak. Lehen aldiz egingo da apirilaren 30etik maiatzaren 3ra. 600 kilometroko lasterketa izango da Naoned-en (Nantes) hasi eta Karaez-en (Carhaix) bukatu arte. Redadegen helburua bretoiera ikaske- ta zein erabilpena bultzatzea izango da eta diru-laguntza urriak dituen Diwan elebiko eskola ekonomikoki laguntzea. Seaska eta AEK autobusa ari dira antolatzen hara joateko.

Euskal Herriko ahotsak biltzen

AHOTSAK.COM webgunean Deba Iba- rreko (Gipuzkoa) Badihardugu Eus- kara Elkartea ahozko ondarea jasot- zen ari da. Proiektua 2004an hasi zuten Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuz-

koako Foru Aldundiaren diru-lagun- tzarekin, eta asmoa da 2012rako Eus- kal Herriko txoko guztietako herri hizkerak jasotzea. Ahozko ondarea- ren oinarria euskaldun nagusiei egin- dako elkarrizketak dira eta orain arte egindakoak zein hemendik aurrera egingo direnak bilduko dira webgu- nean. Ahotsak.com-en transkripzio- ak, audioak eta bideoak daude. Zeha- tzago esanda, 62 herritako 986 hizlari ageri dira webgunean, 1.212 zinta daude, 1.572 transkripzio, 1.176 audio eta 1.021 bideo.

Lehiaketa Pirinioetako hizkuntzetan

ANDORRAKO GOBERNUAK antolatu du Pirinioen bi aldeetako kazetaritza lehia- keta. 2007ko uztailaren 1etik 2008ko ekainaren 30era bitarteko epean egun- karietan, irratietan zein telebistetan argitaratutako kazetaritza-lanak aurkez-

daitezke, betiere Pirinioekin zerikusia dutenak. Euskaraz, katalanez, frantse- sez, gaztelaniaz, aragoieraz, okzitanie- raz, araneraz zein ingelesez egindako lanek parte har dezakete. Irrati edo telebistako lan onenak 3.000 euro jaso- ko ditu, eta prentsakoak beste hainbes- te. Lanak uztailaren 31 baino lehen aur- keztu behar dira.

Euskarazko tesirik onenentzako saria

KOLDO MITXELENA SARIA du izena Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak sortu duten sariak. Bi urtean behin aukeratuko dute euska- raz egindako doktorego tesirik onena eta oroigarria, diploma eta 2.000 euro jasoko ditu irabazleak. Lehenengo deialdia egin berri dute; EHUn 2005- 2006 eta 2006-2007 ikasturteetan eus- karaz idatzi eta defendatutako dokto- rego tesiak aurkez daitezke, *cum laude* kalifikazioa lortu dutenak.

TALAIAN

Ustelkeriaren icebergaren tontorra?

Aurreko astean euskal erakunde publikoekin lotutako beste enpresa batean eskandalu finantzarioa ezagutu dugu. Guggenheim museoko finantza zuden- daria, Roberto Zearsolo Barrenetxea, ia milioi erdi euroz jabetu da 1998az geroztik. Kantitate hori artelanak erosteko eratutako sozietateetatik eta eraiki- naren jabetzapekoa den higiezinaren enpresatik dator. Zearsolok hamar urtean egindako irregulartasunek museoaren barne kontrola, auzitegiaren informeak eta museoak eskatutako kanpo ikuskaritzak pasa zituzten. Zearsolo, Vidarte zuzendariaren konfiantzako pertsona zen. Eta hilabete batzuk igaro dira argi geratu gabeko gaia amaitutzat eman zutenetik: artelanak lortzeko unean, dibi- sa aldaketa zela medio, galdutako sei milioi euroen kasua.

Guggenheimen gertatua ez da euskal enpresa publikoetan jazotako lehen ustelkeria kasua, eta tamalez ez da azkena izango. Hor daude argitu gabeko hurrengo kasuak: Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun ikerketa; Irungo Ogasuna; Balentziaga museoaren eraiki behar zuen Berroeta-Aldamar Fundazioa; Gasteiz- ko Udaleko hirigintza eta Arabako Errioxako golf zelaia. Ia gehienetan EAJK, boterean hainbeste urte daramatzanak, badu zerikusirik. Gertaera horiek jada iritsi dira iritzi publikoarengana, baina beste hainbeste ezkutuan egon daitez- ke oraindik ere. Baliteke orain arte ezagutzen duguna gure erakunde publikoe- tako ustelkeriaren icebergaren tontorra besterik ez izatea. Erantzule politikoe- k lehenbailehen argitu behar dituzte kasu horiek, galdutako euroak non dauden jakin behar da eta ezinbestekoa da erantzuleak aurkitzea. Erantzukizun hori ez dagokio ustez delitua egin duenari bakarrik, baizik eta diru publikoa zaindu eta kontrolatu ez duten erantzule politikoei, bereziki.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Iñaki Arrutik gipuzkoaeuskara.net-en esanak webgunetako hizkuntz aukerez:

“Lehendabiziko multzo batean sailka ditz- kegu, bi hizkuntzen aukera eman arren, gaztelaniari lehentasuna emanez, orri nugu- sia (lehen hitza) beti gaztelaniaz irekitzen dutenak eta erabiltzaileak aldiro, hala nahi badu, hizkuntzaz alda dezakeena (...) Bigarren multzoan bil genitzake hizkuntza aukeratzea sarbide duten web orriak (...) Hirugarren multzo nagusian daude orri nagusia beti euskaraz irekitzen dutenak eta erabiltzaileak aldiro, hala nahi badu, hiz- kuntzaz alda dezakeena (...) Lehendabiziko multzoari aukera ez normalizatzailea (dis- kriminazio negatiboa) dei geniezaioke, bigarren multzoari normalizatua eta hiru- garrenari normalizatzailea (diskriminazio positiboa). Hirurek ematen dute hizkuntza bat edo bestea hautatzeko modua, baina aukerak oso desberdinak dira (...) Lehen hitza eta bigarrena ez dira gauza bera, eta ez dute zertan hizkuntza berean izan, baina izan daitezke; hala dirudi, ezta? Zein pro- portziotan aldatuko du hizkuntzaz elebidu- nak lehen hitz digitala euskaraz eginez gero? Eta gaztelaniaz eginez gero?”.

Atentatu eta makroauzien talka

BILBOKO ABUSU auzoa eta Elgoibarko PSE-EEko egoitzak izan dira oraingoan ETaren jomuga. Beste behin ere, argi geratu da erakundearen mehatxuak ezin direla gutxietsi. 72 orduko epean gertatu dira biak eta, horrek erakusten du edo ETarentzat samur samarra dela sozialisten egoitzen aurrean lehergailuak jartzea, edo polizi indarrek egoitzok ez dituztela behar bezala zaintzen. Denak adierazten du, alabaina, atentatu mota hau ere gero eta zailagoa egingo zaiola erakunde armatuari. Azken finean, gelditu dauden egoitzak zaintzea etengabe mugitzen diren eta askoz gehiago diren zinegotziak zaintzea baino errazagoa izan behar duela dirudi.

Zailagoa izango da PSOEko militante guztiak bizkartzainez babestea, ezinezkoa. ETak Isaias Carrascoren odol arrastoan segitzea erabakitzen badu, beraz, nekez eutsi ahal izango zaio bere jardunari. Horrek, oro har, ondorioak ekarriko dizkio euskal politikari. Eta gaitza da kutsu sektarioa duen jardun moldeak ezker abertzalean ere eraginik izango ez duela pentsatzea.

Baina ikuspegi teknikitik ETaren mehatxuak gutxietsi ezin diren moduan, ia mende erdiko jarduera armatuaren historiak balio beharko luke fenomeno armatuaren irakurketa politikoa ez desitxuratzeko. Su-etanaren garaiaren azken egunetan, esperantzatik fatalismora iragan ginen eguzkiak argia dakarren minutu gutxien tartean. Eta ondorengo hila-beteetan diskurtsoak ere agudo modulatu dira gatazkaren garai gordinen uhinetara.

Elkarriketa eta negoziazioz lortutako bakea atzamar puntan irudikatze-tik, gatazkaren saminera iragan gara itzulera gabeko bidaia irudikatuz.

PSOEren buruzagiek etengabe eta nekaezin errepikatzen dute ETarekin polizi irtenbidea besterik ez dagoela, eta larriena, bukaera hori legealdi honetan emango dela. Beharbada izango dute horretarako daturik, baina egoera hotsunez aztertzen duenak, errealitatean oinarritutako diskurtsoak baino, unean uneko estrategia politikoari lotutako diskurtsoa ikusten du adierazpen mota horretan.

Ezker abertzalearen oinarri sozialaren sendotasuna behin baino gehiagotan ageri izan zaigu azken urteotan, bai hauteskunde garaian, kale mobilizazioan, edo Arrasateko zentsura mozioa moduko hainbat abagunetan. Nafarroan, Bizkaian edo Gipuzkoan, esate baterako, oso agerpen maila desberdina duen mugimendua da, zalantza barik, baina gorputz oso gisa indar erakusle harrigarria duena. Bestelako kontua da, indar hori zein neurritan den eraginkor ezker abertzalearen helburu politikoen lorpenerako.

Diskurtso politikoan ENAMekin hiruzpalau urtetan bukatuko dela salatzea ulergarria izan liteke gerra eszenatokira osorik itzultzen denean, beste gauza bat da benetan halakorik sinesten den. Hori litzateke larriena.

AMNISTIAREN ALDEKO Mugimenduaren (AAB) aurka hasi den makroauzi berriak, Estatuak suntsipen politika horretan serio sinesten duela erakusten du. Eta beste estrategia bat darabil horretarako, "dena da ETA" ospetsua. Baina ez da. ETAkoak dira erakunde horretako militanteak eta pertsonak epaitu beharko dira pertsona gisa egin dituzten



ETak Bilboko Abusu auzoko PSE-EEren egoitzaren aurka lehergailuz egindako atentatuaren irudiak.

delituengatik, Kode Penalean ageri direnak, eta horren arabera bakarrik zigortu ahal izango direnak.

Carrascorena moduko atentatuak, herritar askoren aurrean makroauzi hauekiko ulerkortasunari haize ematen badiote ere, zuzenbide estatuaren oinarrietan sinesteak, epaiketa kolektibo hauen zutoinak salatzea behartzen du. Eta zutoinak oso sinpleak dira: Estatuaren errepresioaren kaltetuak laguntzea eta sostengatzea –politikoki eta humanoki– delitua da; presoek arduratzeta eta hauei onarpen publikoa eskaintzea terrorismoaren apologia da. Azken finean, ENAMeko erakundeetan aritzea, ETAn aritu gabe ere, delitua dela, ETAKoa izatea dela.

Zigorra da 27 auzipetuentzat oro har espero dena, 10 urteko espetxe zigorrera ere iritsi daitekeena. Estatua salatuko ei dute auzipetuek, baina bizi den giroan, entzungor egin nahi duenaren aurrean egindako salaketaren itxura hartuko du epaituen ahaleginak.